

**Ibarrako Udaleko Idazkaritza lanpostua bitarteko funtzionario batek betetzeko
hautaketa-prozesua**

(2020/10/20ko GAO, 200. zk.)

Goian aipatu hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzaileak, 2021eko urriaren 5ean egindako bileran, erabaki hauek hartu ditu aho batez:

1.- 2021eko irailaren 17an egin zen oposizioaldiko **bigarren ariketaren behin-behineko emaitzak** onartzea eta argitaratzea oinarrietan ezarritako moduan. Hauek dira:

HAUTAGAIA	Gaitasun intelektualei buruzko testa (2 puntu)	Banakako elkarrizketa (8 puntu)	GUZTIRA (10 puntu)	EMAITZA*
1	0,70	5	5,70	GAINDITUTA
10	0	5	5	GAINDITUTA
13	0,91	6	6,91	GAINDITUTA
15	0,26	7	7,26	GAINDITUTA

*Oharra.- Oposizioaldiko bigarren ariketa honetan guztira 10 puntu lortu ahal dira; eta 5 puntu lortu behar dira, gutxienez, gainditzeko.

2.- Deialdia arautzeko zazpigarren oinarriaren 4. zenbakiari jarraikiz, izangaiei 3 egun balioduneko epea ematea bigarren ariketaren behin-behineko emaitza horien aurka dagokion erreklamazioa aurkezteko: hau da, **2021eko urriaren 6tik 8ra arte** (biak barne).

3.- **Oposizioaldiko behin-behineko emaitzak** onartzea eta argitaratzea oinarrietan ezarritako moduan. Hauek dira:

HAUTAGAIA	LEHENENGO ARIKETA	BIGARREN ARIKETA	GUZTIRA
1	12,50	5,70	18,20
10	13,15	5	18,15
13	12,50	6,91	19,41
15	13,825	7,26	21,085

4.- Oposizioaldia gainditu duten izangaiei zera gogoraraztea: zortzigarren oinarriaren bigarren paragrafoan jasotzen den egoeran badaude, 4HE egiaztatu izanaren agiria aurkeztu ahal dutela Ibarrako Udalean **2021eko urriaren 8ra arte** (oposizioaldiko bigarren ariketaren behin-behineko emaitzen aurka erreklamazioak aurkezteko epea amaitu arte).

5.- **Lehiaketaldia** irekitzea eta, horrenbestez, **2021eko urriaren 13tik 19ra bitarteko epea ematea** deialdia arautzeko bederatzigarren oinarrian xedatutakoari jarraikiz dagozkion merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko, horretarako www.ibarra.eus webgunean zintzilikatutako eredia erabiliz.

Edonola ere ohartarazten da bederatzigarren oinarriaren 3. zenbakiaren arabera, hautaketa-prozesu honen xede den lanpostua betetzeari begira, 4. HE egiaztatu duten izangaien merezimenduak bakarrik baloratuko direla. Eta oposizioaldiko ariketak gainditu dituztenen artean ez badago 4. HE duen izangairik, soilik kasu horretan baloratuko dira 3. HE egiaztatu duten izangaien merezimenduak.

Ibarran, 2021eko urriaren 5ean.

Epaimahai kalifikatzaileko idazkaria,

